



ATAUNgo UDALA

2002KO URRIAREN 9AN UDALBATZA OSOAK **EGINDAKO BILKURA BEREZIA.**

Ataungo Udaletxean, bi mila eta biko urriaren bederatzian, 20:30ean, Udalbatza Osoa bildu zen bilkura berezia egiteko. Batzarburu bezala, Aitor Auzmendi Asurabarrena alkateak jardun zuen; eta aurrez, batzarkide guztiei egin zitzaaien bertaratzeko deia.

Honako zinegotzi hauek etorri ziren: Jexux Goikoetxea Etxeberria, Jaione Munduate Mujika, Iñaki Eskisabel Zurutuza, Santi Etxeberria Goikoetxea, Aitor Aldasoro Sukia, Oihana Munduate Dorronsoro, Lourdes Etxeberria Arrese eta Joxe Mari Barandiaran Begiristain.

Idazkaria: Serafin Jaka Arrizabalaga.

I.- 2003. URTEKO UDAL-ZERGEI DAGOKIENEZ TASAK, KUOTAK ETA TARIFAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.-

Alkatetzak bilkurari hasiera eman, eta udal-zergen tasak, kuotak eta tarifak aldatzeko, informazio-batzordeak egindako proposamenari buruzko iritzia eskatu zaie batzarkideei. Udal-zerga horiek 2003ko urtarrilaren letik aurrera ordainaraztekoak dira.

Batzarburuak adierazi du abuztutik abuztura bitarteko KPI hartu dela erreferentzia bezala. Epealdi horretako KPI %3,9koa izan da. Nolanahi ere, Ur-Partzuergoaren prezioei eta Sasieta Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuei dagokienez ezarriko diren igoerak, aipatutako KPI baino dezente handiagoak izango direla azaldu nahi du.

Aitor Aldasorok esan du beraien programan zergak izoztearen alde agertzen zirela, eta, beraz, proposamenaren kontra daudela. Gainera, uste dute herritarrek dagoeneko nahikoa ordaintzen dutela.

Batzarburuak aditzera eman du beraien asmoa, aurten behinik behin, Batasunarekin adostasunera iristea zela. Izan ere, aurreko urteetan zer gertatu den ikusita, oraingo honetan zergak KPI gehi bi puntu igotzea proposatu behar litzateke.



ATAUNgo UDALA

Bizi-kostuaren igoeran eta zergen izozketan oinarritutako iritzi desberdinak agertu ondoren, informazio-batzordearen proposamenari buruzko botu-emanketa egin da. Aitor Auzmendi Asurabarrena, Jexux Goikoetxea Etxeberria, Jaione Munduate Mujika, Iñaki Eskisabel Zurutuza eta Santi Etxeberria Goikoetxeak aldeko botua eman dute, eta Aitor Aldasoro Sukia, Oihana Munduate Dorransoro, Lourdes Etxeberria Arrese eta Joxe Mari Barandiaran Begiristainek aurkakoa. Hori horrela, Udalbatzako kideen legezko gehiengo osoak aldeko botua eman duenez, ondorengo erabakia hartu da:

Lehenengo.- Batzordeak egindako proposamena onartzea. Hona hemen proposamen horren edukia:

- **Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Zerga.**

Kuotak gehitzea; honako tarifa hauek ezarriko direlarik:

<u>Potentzia eta ibilgailu mota</u>	<u>Euroak</u>
A) Turismoak	
9 zaldi fiskaletik beherakoak.....	29,02
9tik 11'99 zaldi fiskalera bitartekoak.....	58,04
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak... ..	96,73
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak.....	135,42
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak.....	174,12
20 zaldi fiskaletik gorakoak.....	212,82
B) Autobusak	
21 plaza baino gutxiagokoak.....	134,06
21etik 50 okazatara bitartekoak.....	190,95
50 plaza baino gehiagokoak.....	238,68
C) Kamioiak	
1.000 Kg.-tik beherako karga erabilgarria dutenak	68,03
1.000tik 2.999 Kg-ra bitarteko karga erabilgarria.....	134,06
2.999tik 9.999 Kg-ra bitarteko karga erabilgarria	190,95
9.999 Kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak.....	238,68
D) Traktoreak	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak.....	28,42
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak.....	44,69
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak.....	134,06



ATAUNGo UDALA

E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak

1.000 baino gutxiagoko eta 750 Kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak.....	28,42
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak.....	44,69
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak.....	134,06

F) Gainerako ibilgailuak

Ziklomotoreak.....	7,12
125 cc-ra bitarteko motozikletak.....	7,12
125 cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak.....	12,19
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak.....	24,39
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak.....	48,76
1.000 cc-tik gorako motozikletak.....	97,49

- Zerbitzu Publikoak eskaini eta iharduerak burutzeagatiko tasa.

Honako tasa, kuota edo tarifen aldaketak:

A) Zaborrak bildu eta kentzeko zerbitzua.

Euro/Seihil.

Etxebizitzak.....	32,89,-
Hutsik dauden etxebizitzak.....	21,93,-
Merkatal-erabilpeneko aretoa, tabernak, bulegoak.....	51,33,-
Jatetxeak.....	65,78,-
Industria.....	65,78,-

B) Establezimenduen irekitze lizentzia emateko zerbitzua.

a) Iharduera ez kaltegarrien espedienteak: kasuan kasuko epigrafeari dagokion kuotaren %100.

b) Iharduera nekagarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen espedienteak: kasuna kasuko epigrafeari dagokion %150.

Edozein kasuan, gutxienera: 125,00 euro.

C) Hilerriak.

Nitxoak (hamar urterako): 538,41 euro.

Nitxo txikiak (hamar urterako): 251,56 euro.



ATAUNgo UDALA

D) Ur hornidura.

Kontsumoa

m3/Hiruhil.

Gutxienekoa..... 30,-

Kontsumoa m3/Euro.

Etxeko erabilpena..... 0,46,-

Merkatal-aretoa, taberna..... 0,64,-

Industrialeko erabilpena..... 0,83,-

* Kontagailuen zainketa:

Euro./Hiruh.

Kontagailu bakoitzeko..... 2,34,-

* Ur hartzeak:

Euroak.

Ur-hartze bakoitzeko..... 38,86,-

E) Hirigintza-baimenak ematea:

- Proiektu teknikoa aurkeztu beharrik ez dagoen obrak: 35,50 euro.

- Proiektu teknikoa aurkeztu beharra dagoen obrak: 177,49 euro.

- Segregazio lizentziak: 66,94 euro.

- Interesadunen eskariz, hirigintza arloko espedienteak tramitatzea: 745,43 euro.

- Kontsulta urbanistikoak: 62,44 euro.

Babes ofizialeko etxebizitzak 100eko 90ko bonifikazioa.

Etxebizitza sozialak salbuetsiak.

F) Estolderi Zerbitzua.

Hiruhilabetekoa,

- Ura etxean kontsumitzen denean: 1,82 euro, gehi 0,15 euro fakturatutako m³ bakoitzeko.

- Ur-kontsumoa etxekoa ez denean: 3,62 euro, gehi 0,27 euro fakturatutako m³ bakoitzeko.

G) Udaleko Kirol Instalazioak.

Erreserbak:

Euroak

- Egunerokoa.

Pelota kantxa, orduko..... 6,25

Futbito kantxa, orduko..... 12,50

Egun osokoa..... 62,50



ATAUNgo UDALA

- Hiruhilabetekoa.	
Pelota kantxa, orduko.....	5,00
Futbito kantxa, orduko.....	11,25
Beste Zerbitzuak:	
Argiaren instalazioa orduko.....	2,10
Dutxak.....	0,90

- Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik Tasak.

Honako tasa, kuota edo tarifen aldaketak:

B) Letreroak eta eskaparateak.

	<u>Euro</u>
Metro karratuko.....	1,65,-
Gutxienekoa.....	3,31,-

C) Azoka, Azoka txiki eta kaleko salmentarako postuak.

- Salmenta ibiltaria

	<u>Euro./urt.</u>
Astean bi egunez.....	85,73,-
Astean edo bi astean egun batez.....	43,14,-

- San Martingo azokako postuak:

	<u>Euro./egu.</u>
Fruta postuak.....	3,45,-
Gainerakoak.....	1,72,-
(Adierazitako kuotak hiruhilabeteen gauzatu daitezke, hori izango delarik ordaindu beharreko gutxiengoa).	
(*) Argi indarraren toma erabili ezkerro: eguneko 1,68 euro	

D) Artzaintza (Arantzamendiko larre probetxamendua)

	<u>Euro./urt.</u>
Behor, behi edo zaldi bakoitzagatik.....	7,75,-
Ardi bakoitzagatik.....	0,79,-
Bildots bakoitzagatik.....	0,39,-



ATAUNgo UDALA

Bigarren.- Aurreko puntuan adierazitako erabakiak 30 egun baliodunaz jendearen aztergai jartzea, bidezkoztat jotako erreklamazioak edo iradokizunak egin daitezten.

Hirugarren.- Hartutako erabakiak behin-betiko bihurtuko dira, eta ez da beste erabakirik hartu beharrik izango, baldin eta jende aurreko arauzko epean batere erreklamazio eta iradokizunik egin ez bada.

II.- UDALETXERAKO SARRERA ERRAZTEKO ERABERRITZE-LANEN ETA KOMUN PUBLIKOEI DAGOZKIEN OBREN ADJUDIKAZIOA.-

Udaletxerako sarrera errazteko eraberritze-lanen eta komun publikoei dagozkien obren eskaintzan jarraitu den prozeduraren berri eman da.

J.J. de Ugarte arkitektuak egindako txostena aztertu da. Txosten horren arabera, Construcciones Trati enpresak aurkeztutako eskaintza egokia da lanak behar bezala burutu daitezten. Arrazoiak: kontrataren aurrekontua %6 jaitea arrazoizkoa da; lanek dirauten bitartean administrazio-zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko soluzio bideragarriak proposatzen dira; eta baldintza-pleguan ezarritako egikaritzapen-epea lau hilabete murrizten da.

Hori horrela, Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, honako erabaki hau hartu du:

Lehenengo.- Udaletxerako sarrera errazteko eraberritze-lanak eta komun publikoei dagozkien obrak Construcciones Trati, S.L. enpresari adjudikatzea, ondorengo diru-zenbatekoz: BERREHUN ETA HAMABOST MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA LAUROGEITA HAMAIKA ZENTIMO.

Bigarren.- Javier Arruti Lopez jaunari, beharrezkoa balitz, obrak kontratatzeke onartu zen pleguko 12. klausulan ezarritakoa betetzeko eskatzea.

AKTA BUKAERA.- Eta aztergai gehiago ez dagoenez, Alkatetzak, 20:45etan, bilkura bukatutzat eman du eta honako akta hau egin da. Nik, idazkariak, fede ematen dut.

